



Xabier
Lete
Bergaretxe


Zuekin nago kantatzen

1944-2010

BIDeGILEAK

Egilea:

Inazio Mujika Iraola



XABIER LETE BERGARETXE

(1944-2010)

Gizonak gau osoa pasatu du esna. Bart, gaizki sentitzen hasi denean, antze-man dio bidaia duela ospitalera. Hogeita bost bat urte badira gaixotasunarekin bizitzen ikasi behar izan zuela. Maiz egin behar izan du gaurko bidaia bera ospitalera. Baina gaurkoak ez du itzulbiderik izango. Azken kapitulua, esan du bere artean. Hotza sentitzen du. Haurtzaroko herri hartan sentitzen zuena bezalakoa. Elizan, etxean, eskolan... sentitzen zen hotz klase hura.

Hiru hilabete lehenago esan zion ilobari, behin unea iritsita, zer egin behar zuten zehatz-mehatz. Ostirala da eta abendua; gaur ez du egunak zabalduko, pentsatu

du. Telefonoz deitzeko zain dago. Argitzen hasi denean, etxeko lanak egiten dizkion emakumeari deitu dio. Autoa preparatzeko esan dio, ospitalera joan behar duela.

Armairutik hartu du aspalditik prest zeukan nezeserra eta hura magalean hartuta eseri da sofan. Ez du gogorik mahai txikian utzita duen liburua hartzeko. Nezeserra estutzen du magalaren kontra eta zain geratu da. Hotza sentitzen du. Hoztikarak. Hala ere lasai dago.

Emakumea etorri zaio etxepera autoarekin eta etxeraino igo zaio. «Goazen» esan dio gizonak. Jaikitzekeo zailtasuna ikusi-



Xabier haurra

ta, emakumeak lagundu dio. Azken begiratu eman dio etxeari, agur esan dio, eta kalera iritsi denean, hotza sentitu du berriz. Elur-giro. Elurrari mendian muin emandako haizea. Mantso joateko eskatu dio, mesedez. Leihatilatik Adarra agurtu du, Hernani... Ospitaleen gainera iritsi denean, hantxe azaldu da Aiako Harria eta Bianditz hil-atorra xuri errukitsuz estalita beren hegal-gailurretan. «Lourdes hil zenean bezala», esan du gizonak.

Gidariak ez dio ulertu. Gelditzeko eskatu dio. Autotik atera eta txamarraren lepokoari bi eskuez helduta beha geratu da. Isil, zuzen, jakitun, jabe. Hitz horiexek etorri zaizkio gogora.

BIZITZA ZERTZELADAK

Gizonak Xabier du ponte-izena eta Lete Bergaretxe dira bere bi abizenak. 1944an jaio zen, Oiartzunen, apirilaren 5ean. Aita, Fermin Lete Olaizola, Errenteriakoa; ama, Edurne Bergaretxe Muguruza, familiaz Elgoibarkoa, baina Eibarren bizi izandakoa txikitan. Amaren aldeko familia Oiartzunera aldatu zen bizi izatera Arizabalo (Aitzola) baserrira maizter. Edurne Bergaretxek irakasle ikasketak hasi omen zituen, baina ez omen zituen bukatu gerra heldu zelako. Fermin Lete gazterik hasia zen lanean moldeatzaile, hasieran Marqueze Errenteriako fundizioan, eta gero Pasaiaiko Victorio Luzurriagan, jubilatua zen arte. Amak etxean egin izan zuen lan, makina txiki batean *cotton perlé* deitzen zen hari finezko galtzerdiak josten Donostiako denda baterako. Gerra iritsi zenean, Ferminek 27 urte zituen eta

STVko Amaiur batailoian gudari sartuta egin zuen gerra, harik eta Bilbo erorita bertan harrapatu zuten arte. Lau urte eta erdiko kartzela aldia bete zuen, Gasteizen aurren berritan eta Puerto de Santa Marian gero. Guda lerroa Aitzola baserrian, Arragua auzoan, egon zen ia bi hilabetez Errenteria eta Oiartzun arteko mugan.



Xabier eta Arantza, amona eta lehengusuekin



Neba-arrebak guraso eta aitona-amonekin

Xabierren aitaita iritiz abertzale izateagatik Iruñeko San Kristobalera eramán zuten atxilo. Ferminék, Puertotik itzuli zenean, Edurne ezagutu, eta ezkondu egin ziren. Bi seme-alaba izan zituzten: Xabier bera zaharrena eta Arantza gazteagoa.

Xabier haurra zenean, herri erabat euskalduna zen Oiartzun. Ez zuen meritu handirik euskaldun izateak: etxean, kalean, elizan euskara zen hizkuntza nagusia. Gailegoen eta extremadurarren seme-alabek natural-natural hitz egiten zuten euskaraz kalean. Baita guardia zibilen seme-alabek ere.



Xabierren lehenengo jaunartzea. Ezkerrean arreba

Amaren familiarekin zeukan harremanik handiena Xabierrek, eta, familia hura sentimenduz abertzalea zelarik, saiatzen ziren alderdi kulturala ere lantzen haurrekin. Euskarazko irakurgaiak ere izaten zituzten eskura ahal zen neurrian eta irakurrarazi egiten zieten, «Kulixka sorta»ko liburuak esate baterako. Garai hartan, 12 edo 13 urterekin egiten zen «komunio handia», eta orduko neska-mutilak meza-liburu txuri batekin joaten ziren jaun hartzera. Denak, Xabier izan ezik, eta lotsatuta zihoan. Xabierrek azal beltz-beltzeko bat zeraman esku artean: Orixeren *Urte guziko meza-bezperak*.

Lehen eskolaratzea herriko moja merzedarietan egin zuen, eta zortzi urte bete zituenean Herrerako La Sallera joan zen ikastera hamahiru bete zituen arte. Ez zuen oroitzapen onik gorde lau urte haietatik: «Hobe urte haietaz ez oroitzea. Orain gauzak asko aldatu dira, baina orduko *hermano* gehienak transtornatu batzuk ziren. [...] Denetan okerrena, autoritatez jantzia zegoelako, zuzendaria zen. [...] Beldurgarria zen. Irainak eta jipoiak sarri erabiltzen zituen. Batzuekin».

Batxilergoa berandu hasi zuen, hamahiru urterekin, familian ez baitzuten uste

ikasten jarraitu behar zuenik. Batxilergoa egiten ari zela, ordea, han ezagutu zuen Ricardo Moreno izeneko literatur irakasle bat eta harekin erabat irakurzaletu zen. Salamancakoa zen Moreno maisua, eta irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, idazteko ahalmena zuela sinetsarazi zion Xabierri, eta hartara bultzatu zuen. Osaba apaiz bat ere bazuen Xabierrek, amaren anaia Juan Jose Bergaretxe, eta haren etxean aurkitu zuen behar zuen irakur bazka orotarikoa, tartean euskal liburuak ere bai. Domingo Agirreren *Garoa* eta *Kresala*, adibidez, euskaraz; eta Baroja, Unamuno, Azorín eta Pérez Galdós gaztelaniaz.

Aldaketa handi bat etorri zen gero. Tarragonako Unibertsitate Laboralera joan zen, Espainiako Lan Ministerioaren beka bat aprobetxatu eta, ikasketa teknikoak egitera. Industria Peritajea ikasten ari zuen, baina ez zuen bukatu; hori omen zen aitaren ametsa eta ez zuen bete. Hiru ikasturte egin zituen han. Baina etxetik kanpo, beste gauza batzuetan sakondu zuen behintzat, bere irakurzaletasunerako bazka polita aurkitu zuen unibertsitateko liburutegian («filosofiarako lehen hurbiltzea» aipatzen du Xabierrek berak), eta,



Oiartzungo lagun-taldea. Aurrean, Xabier eta Julen Lekuona



Tarragonan, Unibertsitate Laboraleko otxotean



Xabier atleta

bestalde, zinemaren deskubrimendua egin zuen hango zineforum batean.

Hemezortzi urterekin itzuli zen Oiartzunera. Peritajea utzita Irakasle Eskolan hasi zen ikasten, baina hura ere ez zuen maite eta utzi egin zuen: «Aspertu egiten nintzen ikaragarri, orduko irakasle eskola ez zen gaur egungoa, eta ikastolaren irteerarik ere ez zegoen garai hartan. Beraz aukera bakarra geratu zitzaidan. Lanean hastea». Eta lanean, Pasaian hasi zen, Bianchi & Ibarrondo lantegian. Hango soldataren zati bat etxean eman eta gelditzen zitzaionarekin bere lehen liburuak erosi zituen. 1963an lanean hasi eta soldadutzara joan arte, irakurri



Futbolean kopa irabazita

eta irakurri egin zuen era guztietako liburuak eta autoreak: Albert Camus, Jean-Paul Sartre, François Mauriac, Jacques Maritain, Lev Nikoláyevich Tolstoi, Henri-Marie Beyle *Stendhal*, André Gide, Pierre Theilard de Chardin, Ives Calvez, Charles Moeller... Beste mundu batzuk aurkitzen zituen liburuetan, pentsatzeko beste modu batzuk... beste eszenategi batzuk, beste gertaera batzuk eszenategi haietan.

Oiartzunen beti egon da antzerki tradizio bat. 1963an, Tarragonatik bueltan, bere kideko lagun batzuekin bildu —tartearen Eugenio Arozena antzerki gizona— eta herriko kultur elkartearen barruan antzerki talde bat sortzea erabaki zuten.

Lartaun zuen elkarteak izena, eta Lartaun jarri zioten antzerki taldeari ere.

Antzerkiaren bidez ezagutu zuen Xabierrek Iñaki Beobide, Donostiako Jarrai antzerki taldeko zuzendaria, eta Beobideren bidez, berriaz, Ramon Saizarbitoria. Ordurako Beobidek eta Saizarbitoriak *Zeruko Argian* idazten zuten eta, 1964an, Xabierrekin hitz egin zuten eta proposatu zioten ea nahi ote zuen beraiek bezala aldizkari hartan idatzi, maiztasun batekin eta «Gazte naiz» sailean. Sail horretan idazten zuten, besteak beste, Ramon Saizarbitoriak berak, Ibon Sarasolak, Begoña Arregik, Mari Karmen Garmendiak eta Joxemi Zumalabek. Hala hasi zen Xabier Lete lehen artikuluak idazten.



Oiartzungo Lartaun teatro-taldean antzezlarri

GAZTE NAIZ

Jakin naiean

Batzatzen, baita joko estralari bat iruditzen zait. Joku lokalak bere erregiak izaten ditu, eta amplexu sendu zuzenaren gero neurri oin kargulotzen. Baita niza go-lean gaurer sentidun gaitu ezkeru, jokoak ez da arazirik, eta alkarri begira gelditzen gura zaroa errotuta, zer denonon egiten ari eta geroa zuzen baxela.

Longo batean ezaten zidote gaurko mundu onetan ez omen dute garrantirik pertsonaren kaxka bereziki; lujo gerozki bat omen da nola kolokatuaren nerretasun aldatu aritzea, eta baxelakizunak gerde egiti beaz omen dira beste okalduo haterako. Orreko lu, galdetarik zuzen dituzte, mundu eta zoro, nola eta zergatik; eta beste nola. Adikido baten begietan neurrer ituzten baxela, eta arrotza galdetu ondoren «gero» nago» erantzun baxela, ori inportantia omen da. Baitan, «baxerrik nago» ezaten baxela, orre ez omen du baxera inportatza.

Guzua gutxi eskidun alur mundu onetan. Oraingo baxela jarraitzen baxera, gero eta gutxiago jalkingo dituzte seguru aski. Ez da muski gaur grabatu. Gaurer grabatodena geroan serriedadon baxerrik dago. Ahal da lokaritari ti-riaz bat omen eta bi paxka egiteko; orreki sursura, marie- netai duxta estralari batean asten dira, erregirik gabe, ero- tuta baxela; tropa zar baxer baxera arrotz dute, eta paxa eta neurrer ez dira kila txaro baxerrik baxerrik. Orreki sursura, inportantia da baxeraren noia baxera; mugitu zaitte, eta salbatu arkituko zara. Ez alboro baxerrik; ba- rura ar da gutxiago. Segi, segit sursura. Ekiti: orre san- dago baxerik. Etxera duxta. Duxterako arkiti eta etzi- zu galdetuko Etxera agian ilora iritxiko, baxer ez du ajola.

Oberrogo da galdetarik egiten astea, eta pertsonen bax- kax lujo bat baxer duxta ezkeru, galdetarik oke ez dute san- dederik ere. Esgalteen albor sursuri arrotz kila aski. Arrotz kila asten baxera, eta pertsonen maiztasun- galegi arrotz nai baxeraz. Ondoren txar baxera iritxiko zara; ez dute ezer egiteko, astera baxera sursura mugituko. Eta orduan, zura litoria estaliko duxta baxeraren galdet- anozki hitz baxer jarritu dituzte; Hemen baxeraz asten- pertsona eta tradidore.

Tradidore izateak baxer mundu onetan zidat. Ori leha- rogo zara. Orreko, gero eta gutxiago ematen diti. Zuhala da baxera, motza eta nekasa da pertsona; eta ez dago mun- duan tradidore izan gaitu baxerrik. Idoi baxer asten ha- duxta, beste bat tradidorezko duxta. Etxerera baxeraren baxera, eskidunak nik egiteko inportantia nola asten- tuko dute baxerari; eta baxerak. Ez dago olibitxerik. Amets aderegite zara, eta seme giteazun seme gitean, baxeraz seme gitean, eta baxerak ez duxteraz ezere ere, eta kila.

Pertsona eta sistemat, baxera eta kaxera, goia eta baxi; ez duxtu hitz eskidunak. Ekitite eta pertsonamendu ere ez. Persona baxeraz baxer galdetuz baxera, eta maiz- tasuna eta errotz senti arrotz baxeraz, ez duxtu beste eskidun zabal oke kaxeraz; eta egiten, gaitu, re- baxeraz tradidorezko duxta. Baitan amets inportantia inportantia asten baxera, pertsona nai te nize baxer- terti; egiti baxer duxta gutxi eta okego. Orduan iritxiko

zara lujo'ko arkituaren definizio berri batera. Eta begiak gauriz izan ez baxeraz, galdeta zuzete.

Aukerazteak mita duxta. Izan ere, ez dago baxer bat au- kerazterik beste astu baxerazera gaitu. Egiti baxera eta baxer baxeraz mita bat dira, eta konprentzen salatu es- tere, kontraktidore arkitiko duxta zere baxera. Konpre- sio'ari bere eskidun astu ezkeru baxerik, zuzer duxta ha- terik, tontze edo fonsitara ez baxer baxer, oke duxta.

Konprentza da gaur egiteko zabaltean religio baxera. Gizon baxer bere baxer konprentzen baxer, baxeraz jo- kaberazki zailona aukeratu duxta, eta eskidun gutxiak be- ragan duxta. Baitan konprentzen baxeraz baxeraz duxta izango ezkeruko baxer izangoa. Ez baxer, baxer bat aukeratu. Konprentza da aukerazteraren konfuzio. Ituz- tuzaz aukerazteraren duxta, kate baxerik ez du egiten, aukerazte zaila da, baxer ez da sin zaila. Ekiti zabalte- suna baxer da, beste edoker eskidorezko baxer.

Oke sursura, baxer baxer konprentzen duxta, justifi- katu egiten da baxer ere, eta justifikatuz baxeraz po- kutu lail bat bere zalkona. Aukerazte zidat baxer baxer; ez ad baxeraz baxer, sursura zait eta baxer duxta nola sursuri sursura beste ezereko ere etalun ajolako. Ez ne- gozko konprentzen erantzun sursura, eta txara joze zar. Baxer baxer, oke zar baxeraz bat naxela pertsonaz zuzen baxer ez da egiti. Zer erregio aukerazte baxer. ? Begiak itxi, eta sursura! Geroz baxer justifikatu eta hitz baxer ez duxteraz munduaren baxeraz gaitu gura baxer justifi- katu baxer. Baxeraz justifikatuz da bere baxer konprentza- ren arkitu, eta, nortazere, kontraktidorez mendeko giteko ezere ezaten duxta giteko.

Erekiak zalditakak gai zalditakak arto baxer dira; sursuri oke ez sursuri, inportantia oke ez multatu. Oke konprentza oke baxeraz. Aukerazte ez da aski; rebaxer egiti baxer dira egiteko gura adokoren arrotz. Eta arrotz aski baxeraz gaitu zalditako maiz.

Pertsona ez duxta inportantia. Pertsona baxer, den baxerazun izanik, baxer garrantzi; eta bere kaxak baxeraz unizir arto baxer dira. Sistemat ez dute pertsona baxer edo baxeraz baxer. Eta aukerazteraren konfuzio pertsona konkretzen deskalorizteraz baxer baxer, ezin nixetako gaitu- tere egite aukerazun baxeraz. Pertsona baxerazun gaitu- beraz gerozgo arrotzko duxta asten baxeraz, baxeraz egiteko duxta. Maiz da hitzaz; ez duxta denonon astid- egiteko duxta.

Nola gaituak naxer hitz baxerazun baxeraz eta nege- raren galdetrik. ? Ekiti galdetrik baxerazun baxeraz zuzen- tzen aski. Pena da. Konprentza hitz izango da gura orreki orreki izan baxer baxer.

Nik ez duxta lujo'aren sursuri num aski eta num baxerazun den. Baitan pertsona rebaxerazun ez baxer baxer, eta ideat'oz baxer justifikatuz pertsona galdetrik erregio' paxerazun baxer inportatza. Egiti gerozgo ere problema baxeraz galdetrikazko maiz: sursuramendu.

XABIER LETE

Leteren artikulu bat *Zeruko Argia* astekariko «Gazte naiz» sailean, 1966

Ordurako irakurriak zituen eskual lite- raturako uhin berriaren emaitza batzuk: Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezku- tua* eta *Peru Leartzako* eleberriak eta *Hun- taz eta hartaz* saiakera bilduma, Etxaide- ren ordura arteko eleberriak, baina batez ere liburu bat irakurri zuen zirrara eragin ziona: Gabriel Arestiren *Harri eta herri*.

Irakurtzearen irakurtzez, idazteko gogoia ere piztu zitzaion. Lantegian aspertu egi- ten zela azaldu zuen gerora behin baino



Balerdiko haizak (Aralar)

gehiagotan, eta une libreetan hasi zela poesia idazten Pasaiako bokaleari begira. Gabriel Arestiren eragina nabarmena zuen garai hartan, hurbilekoak egiten zitzaizkion bilbotarraren idazkera eta erabiltzen zituen gaiak. Ukitu soziala alde batetik eta existentzialista bestetik agerikoak zituen. Irakurketetatik hasita existentzialismoa muin-muinean zeraman orduan. Geroago aitortzen zuenez, Kafka ere asko irakurri omen zuen garai hartan eta euskaldunen artean, lehen aipatutakoez gain, Mikel Lasak ere zirrara eragin omen zion.

Zeruko Argian idazten zuenean, berriz, jarrera ezkonformista eta ihardukitzaile bat landu zuen bere kideko gazteaniztarrekin batera, orduko idazle beteranoe-kiko: Inazio Eizmendi *Basarri*, Nemesio Etxaniz, Antonio Maria Labaien, Jose Artetxe...

Arestirekin ere aurrez aurre antzerkiaren bidez kontaktatu zuen, Eibarren, antzerki taldeek egin zuten topaketa batzuetan. Gero, Arestik Leteren artikuluak irakurri, gustatu eta deitu egin zion eta hor sortu

zen harremana. Gabrielelek antzerki lan bat idatzi zuen Lartaun taldeak joka zezan lehen aldiz: *Justizia txistulari*. Eta estrainaldira joan zen Oiartzunera Meli bere andrea lagun hartuta.

Letek berak aitortzen zuen beste eragin garbia Oteitzarena izan zuela eta, zehatzago, haren *Quosque tandem...!* liburuarena. Haurra zelarik ezagutu zituen Arantzazuko artistak eliza berria egiten lanean. Xabierren amamak Arantzazura noizbehinka joateko zaletasuna zuen eta berarekin eramaten zuen. Mutil koskorra zelarik han ezagutu zituen Oteitza, Basterretxea, Lara... 1963an argitaratu zen *Quosque tandem...!*, eta gogotik hunkitu zuen Xabier haren irakurketak: euskal arimaren interpretazio estetikoa, artean bezala bizitzan, cromlecharen teoria espiritual guztia, eta baita liburu hartan ageritako herri-literaturarekiko atxikimendua eta errebindikazioa. Berria zitzaion eta erakarri egiten zuen.

Kataluniatik bueltan irakurri eta idatzi egin zuen batean eta bestean. Artikuluak *Zeruko Argian* argitaratzen zituen, eta olerkiak asko hautsi egiten zituen, baina,

1965eko erdi aldera, 21 urte ondo bete-ta, Xabier maiztasun handiagoz hasi zen olerkiak idazten. Material bat bazuen bilduta urte bukaera alderako, eta gertatu zen «Gipuzkoa» izeneko poesia sari baterako deia sortu zela, Agora elkargoak antolatua. Material hari *Pekatu zaharrak eta sinismen berria* izenburua jarri eta urte hartan bukaera aldera aurkeztu zuen sariketara. 1966an, lehen saria eman zioten. Urte hartan Ibon Sarasola ere finalista izan omen zen, eta bietako nor saritu behar zuten eztabaida gogorretan ibili omen ziren epaimahaian. Xabierren lanari «gizarte gaidun poesia funtzionala» deitu zion Juan San Martin epaimahai buruak.



Xabier Lete, 1967 (Juan San Martinen argazkia)



Xabier, Lourdes eta Mikel Laboa Berako
Alzateko plazan 1966an

Hurrengo urtean ere (1967), sariketa berera aurkeztu zen Lete eta lehen saria irabazi zuen berriz ere *Egunetik egunera orduen gurpilean* izeneko lanarekin. Bi urtetako lan sarituekin bat egin eta azken izenburu horrekin argitaratu zion Cinsa Bilboko etxeak 1968an. Azal ederra Remigio Mendibururena da eta Juan San Martinen hitzaurrea darama.

EZ DOK AMAIRU

1965. urtea izan zen Xabier Leterengan hasiera artistikoaren urtea, ez lehenago ezer egin ez zuelako, baina bai ordura arteko guztiak loraldi erabatekoa izan zuelako urte hartan. Ikusi dugu aurreko urtean *Zeruko Argian* idazten, poesia idazten ere ikusi dugu Agoraren «Gipuzkoa» sarirako. Xabierren beste alderdi batek ere, gerora ezagunena gertatu denak, kantariaren alderdiak, urte hartan du ernamuina.

Eta ernamuin hori Ez Dok Amairu taldearen eskutik etorri zen. Ordurako eza-guna zen Labegerieren bidea. Mikel Laboak ere disko txiki bat grabatua zuen, Benito Lertxundi eta Lourdes Iriondo hasiak ziren euskaraz jendaurrean kantatzen. Kataluniako kantagintza berriaren antzeko zerbait egin nahi zen Euskal Herrian eta bilerak egiten hasi ziren. Historia askotan azaldu da, baina entzun diezaiogun Xabier Leteri berari kontatzen: «65ean ezagutu nuen nik Joxan Artze Lekuonatarren etxean, Oiartzunen, eta haien bitartez jakin nuen —Joxan Artzeren eta Julen Lekuonaren



Benito Lertxundirekin Arizkunen

bitartez— mugimendu bat martxan jarzen ari zirela; bederazka ari ziren kantari batzuekin talde bat egin nahian, euskal kanta berriari sustapen berezi bat emateko, eta garapen berezi bat. Bakarka zebiltzanak orduan Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo eta Mikel Laboa ziren ezagunak. Mikel oraindik Bartzelonan zebilen mediku ikasketak amaitzen, eta hemen ez zen ibiltzen jendaurrean kantatzen, baina bere diskoak ezagunak ziren. Orduan, Joxanek eta Julenek esplikatu zidaten nola talde hori martxan jarriko zen eta ea animatuko nintzen bileretara Donostiara etortzen. Eta hasi nintzen etortzen, eta hasieran lankide izan nintzen bi aldetatik: kantuen hitzak edo letrak, poesiak idaz-

ten hasi nintzelako besteentzat, Lourdesentzat, Benitorentzat... eta bestetik antolaketa lanetan sartu nintzelako. Ez Dok Amairu taldea 1965. urtearen erdialdera sortu zen, baina lehendabiziko kantaldiak urte horren bukaeran izan ziren, oroitzen naiz oso ongi non izan ziren, Zumarragan eta Irunen, Irunen izan zen lehendabizikoa eta han antolatzaile ibili nintzen, antolaketa batek izaten duen logistika hori muntatzen eta laguntzen». Izena, Ez Dok Amairu, askotan aipatu den bezala, Oteitzak jarri zion; eta Remigio Mendiburuk egin zuen taldearen logotipoa, txalapartadantza eder hori.

Taldean sartzerako, hasia zegoen Xabier Oiartzunen bere adiskide batekin gitarra jotzen ikasten: Jesus Mari Nuñez zen lagun hori, eta taldean hasi berritan gitarra ikasiz batera lau edo bost kanta bazituen eginak 1966 hasieratan. Urte hartan, martxoan, Seguran kantatu zuen lehenengo aldiz jende aurrean Xabier Letek. Horrela gertatu zen: «Kantaldi bat eman behar zuten Benito Lertxundik, Julen Lekuonak, Lourdes Iriondok eta beste zenbaitzuek, eta Benito gaixo gertatu zen, eta orduan ba esan zidaten “hi, bat falta diagu eta



Soldaduskan Arakan (Araba)

joango al haiz, eta animatu hadi” eta horrela. Eta horrelaxe joan nintzen. Orduan Oiartzunetik Errenteriarara autobusean, trena hartu, Beasainera ailegatu, han autobusa hartu eta Seguraraino. Oso urduri nengoen egun hartan, oroitzen naiz oso urduri nengoela, eta bestetik emozionatuta, jendaurrean lehendabiziko aldiz zer gertatu ote zitekeen. Joan nintzen eta lau edo bost kanta kantatu nituen: bi edo hiru nireak eta gero Xalbadorren bertso batzuk eta Uztapiderenak, eta horrela izan zen lehendabiziko aldia». Martxoaren 26a zen, igande arratsaldeko bostetan.

Eta kantaldia bukatu zutenean, denak afaltzera joan ziren. Hantxe zeuden Joxan Artze eta bere anaia Jexus txalaparta jotzera joanak, eta hantxe mokadu bat jan eta solasean ari zirela, Joxan Artzek hone-

la esan omen zion Xabierri: «Hi Xabier, hain gaizki kantatzen duk, kriston exitoa izango duk. Hik ez duk teknikarik, hi haiz basapizti bat, Oiartzundik etorritako otso bat bezala haiz, eta hik hain gaizki kantatzen duk, hik kriston exitoa izango duk, ikusiko duk, nik esaten diat».

Kantagintzan, taldearentzat oso garrantzitsua izan ziren Nemesio Etxanizen eta Mixel Labegerieren ekarpenak. Halaber, Kataluniako *Nova Cançó* eta *Els Setze Jutges*-en eraginaz gain, garaiko beste hiru iturri nagusitatik hartu zuten inspirazioa Ez Dok Amairuko kideek: Hego Ameriketako kantagintzatik (Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra...), frantziar kantagintza garaikidetik (Georges Brassens, Léo Ferré, Jean Ferrat, Jacques Brel...) eta AEBetako folk berritik (Bob Dylan, Pete Seeger, Joan Baez...). Xabier Letek, konkretuki, Brelen eta Brassensen kantu baten baino gehiagoren bertsoia egin zuen, eta doinuren bat edo beste erabili ere bai.

Xabierren lehen disko singlea 1968an argitaratu zuen eta beste bi argitaratu zituen gero, lehen disko handia kaleratu baino lehen.



Lourdes

Lourdes eta Xabier

Segurako lehen kantaldia martxoan izan zen, eta maiatzean soldadutzara joan beharra zuen Xabierrek, Gasteiz ondoko Arakara. Joan baino pare bat egun lehenago nobio jarri ziren Lourdes Iriondo eta Xabier Lete. Honela gogoratzen zuen Xabierrek urteetara, Lourdes ezagutu eta berarekin ateratzen hasi zen garai hura: «65ean Ez Dok Amairuko bileretara etortzen hasi nintzelarik, ba Lourdes zen idazkari lana egiten zuena eta orduan ezagutu genuen elkar eta, bueno, hasieran ez zirudien han ezer gertatuko zenik, adiskideak ginen eta lankideak ginen. Baina handik hilabete gutxitara ba... gertatu egin zen. Ni oso sentibera sentitu nintzen berari buruz; berak, bueno, ez zuen be-

hin ere pentsatua izan, berak, gaixotasuna zuelako baita ere, bihotzean, bihotzeko patologia bat zeukan gaztetatik eta 31 urte zituen eta bere bizitza-planetan ez zuen ikusten nonbait, zera, ezkontze hori eta



Ezkontza egunean Izaskunen, 1968ko urrian, alde bietako gurasoekin



Ez Dok Amairu taldekoak Atahualpa
Yupanqui eta Paco Ibañezekin

inorekin lotze hori, baina elkarrez, esaten den bezala, gustatu egin ginen, eta horrela hasi zen harremana, taldearen testuinguru horretan hasi zen, eta gero, gero eta pertsonalagoa bihurtu zen harremana, eta lagun egin ginen eta hasi ginen elkarrekin ateratzen, eta, bueno, gertatzen den prozesu hori... Eta enamoratu egin ginen, gauzak horrela dira, ezta? Eta zalantzak izan zituen berak eta nik ere bai; ni gaztea nintzen, berak nik baino adin gehixeago zuen eta ze arraio egin genezake guk elkarrekin, ezkon gintezke, ez? Bere familian ere ez zuten ikusten Lourdes ezkondu zitezkeenik eta horrela, tipo gazte batekin, eta artista batekin eta ez dakit ba nik. Baino ez zen arazorik izan. Elkar ezagutu eta elkarrekin ateratzen hasi eta handik bi urtetara-edo ezkondu ginen».

1968ko urriaren 11n ezkondu ziren Tolosako Izaskungo Andre Mariaren elizan. Eztei-bidaian, Zuberoara joan ziren hamar egun.

BAGA, BIGA, HIGA

1968an Ez Dok Amairu barruan ari zirenak konturatu ziren talde barruan egiten zutena oso garrantzitsua zela, bai, baina ez zela nahikoa. Taldeko elementu guztiak banaka ari ziren. Nork bere arrakasta zuen, nork bere bilakaera, baina denak indibidualki hartuta. Beraz, Ez Dok Amairu kantari-sorta bat zen bata bestearen segidan abesten zutenak ikuskari batean, elkarren artean zerikusi gutxiago edo gehiago zeukatenak, baina nork bere ezaugarriak gordetzen zituen agertoki gainera igotzen zenean. Ez zen talde-lanik ageri.



Mutil-dantza, Donostiako Trinidad plazaan,
Baga, Biga, Higa ikuskariaren barruan



Leteren disko batzuk

Hasieratik, ordea, oso garbi zeukaten beren helburu nagusietako bat, taldeak nola baiteko filosofia nagusia izan behar zuela; bakoitzak aberastu behar zuela taldea, eta taldeak aberastu behar zuela bakoitza. Eta hori ez zen gertatzen ari. Orduan erabaki zuten urrats bat egin behar zela aurrera, eta ikuskizun integral bat sortu beharraz mintzatu ziren; hasi eta buka, kantari eta artista bakoitzak bere rola jokatu behar zuten agertoki gainean, ia antzerki lan batean bezala. Bertan integratu beharra zegoen kanta, musika eta dantza. *Baga, Biga, Higa* izena jarri zioten ikuskizunari, eta ez zioten ikuskizun deitu «sentikari» baizik.

Profesionalki aldaketa handia jo zuten urte haietan. Ez Dok Amairuko kide gehienek profesionalizatzearen aldeko apustua egin zuten. Konkretuki Xabier Lete,

ezkondu zenean, Bianchiko lana utzi eta Iberdueron hasia zen. Han lau bat urte ibili zen, eta 1971n, Lourdesekin batera beren lanak utzi eta kantagintzatik bizitzera pasatu ziren. Gauza bera egin zuen Benitok eta beste hainbatek ere. Ez zen izan polemikarik gabeko erabakia. Jende askok ez baitzuen uste garai hartan kantatu eta horregatik gainera kobratzea zilegi zenik.

Bi urteko epea bete zuen ikuskari hark. *Baga, Biga, Higa* sentikaria 1970eko abuztuaren 22an estreinatu zen, Portugaleten, eta 1972an taldea desegin edo lokartu zen arte iraun zuen. Garaiko gizarteak zituen kezkak eta arazoak islatu nahi zituzten sentikarian. Horretarako, ezohiko emaldi bat prestatu zuten, bi zatitan banaturikoa, taldearen osotasuna agertzen



Xabier Lete Zazpiribai taldekoekin

zuena. Sentikariaren hasieran eta amaieran elkarrekin dantzatzen zuten Baztango mutil-dantza. Gainerakoan, antzerkia, dantza, poemen irakurraldia eta kantak ziren osagai nagusiak. Sentikaria Euskal Herriko toki askotan aurkeztu zuten: Urnietan, Tolosan, Donostian, Bilbon, Etorrion, Uztaritzen, Iruñean, Barakaldon, Oñatin... Baita Euskal Herritik kanpo ere: Bartzelonan, Pauen, Britainian... bera izan zen taldearen eragin-puntu gorena, baina baita amaiera ere, hortik aurrera ez baitzuten ezer gehiago egin elkarrekin.

Arrazoi asko izan ziren taldea desagiteko edo proiektua bertan behera uzteko: arrazoi politikoak, estetikoak eta artistikoak batez ere. 1972ko azken hilabe-

teetan, kantari haietako bakoitzak bere bideari ekin zion, batzuetan bakarka eta beste batzuetan taldean kantatuz. Ez Dok Amairutik bi talde sortu ziren: alde bate-tik, Ikimilikiliklik zegoen, Artze anaiek, Mikel Laboak eta Zumeta margolariak osatzen zuten; eta bestetik Zazpiribai taldea sortu zuten Lourdes Iriondok eta Xabier Letek Lertxundi, Irigarai eta Iparraldeko hainbat kantari lagun zutela. Hantzeuden, adibidez, Pantxoa eta Peio, Pantxika Erramuspe, Iñaki Urtizbera, Ugutz Robles-Arangiz, Manex Pagola, Argiako Loli Ansa dultzaina-jolea eta soinu-lariak eta abar. Baina hiru-lau hilabeteko iraupena besterik ez zuen izan Zazpiribaik.

BAKARKA DISKOGINTZAN

Orduan bai, 1973tik aurrera beste etapa bat hasi zen Xabier Leterentzat. Gogotik hasi zen gainera lanean. 1974an, argitaratu zuen bigarren olerki bilduma, eta izenburu horixe jarri zion gainera: *Bigarren poema liburua*. Sara Sotoren marrazkiak eta azala zeukan eta hitzaurrea Anjel Lertxundik idatzi zion. Baina poema liburuaz gain, bakarkako bere lehen LPa ere urte



Leteren disko batzuk

hartan argitaratu zuen. Bere izen-abizena zen diskoaren izenburua, eta bere irudi ile luzeekikoa azaleko argazki zuri-beltzekoa, Fermin Leizaolak ateratakoa. Besteak beste, han zeuden Bernat Etxepareren *Kontrapas*, *Ni naiz*, *Nafarroa arragoa*, *Sehaska kanta*, eta Lourdesekin batera kantatzen zuen *Izotz ondoko eguzki* Lizardirena. Lehenagotik hasia zen kolaboratzen Antton Valverderek eta urte hartan grabatu zuten, Julen Lekuonarekin batera, *Bertso zaharrak* disko gogoangarria. Xabier Lete ulertzeko beste alderdi honi ere begiratu behar baitzaio, herri literaturari alegia.

Bi urte geroago, 1976an, kaleratu zuen *Kantatzera noazu...* disko luzea. Han zeuden *Izarren hautsa*, *Nik ez dut amets haundirik* edota *Itsasoan urak haundi* kantu ederrak, azkena Julen Lekuonaren

letrarekin. *San Martin*, *azken larrosa* ere han zegoen, Brassensen *Saturneren* melodiaren gainean egindako kantu estoikoa. Urte berean Antton Valverdek eta biok kaleratu zuten Txirritaren bertsoekin beste disko bikain bat.

Beste bi urte eta beste disko bat: *Lore bat*, *zauri bat* (1978). Bertan grabatu zituen





Etxeko pianoan

Haizea dator ifarraldetik, Xalbadorren heriotzean famatua, edo Teologia, ideologia. Albumaren irudi ederrak Juan Luis Goikolearenak dira.

Horrez gain, Xabier Letek kantu asko idatzi zizkien bi kantari laguni, hasieran: Lourdesi berari eta Antton Valverderi. Honen 1975eko lehen disko luzean dauden *Maitasunez hil* eta *Hitzez hitz kantuen letrak*, adibidez, Xabierrenak dira. Kantaldi asko egin zituzten, gainera, urte horietan hirurok elkarrekin. Eta hain zuzen ere, hirurok elkarrekin erabaki zuten 1978an kantagintza uztea: «Aspertua eta gogaitua nengoen kantaldien inguruan eta barruan gertatzen zirenekin. Oso

giro makurra zegoen, eta kantaldiak aitzakia bat ziren kontsignak eta esloganak oihukatzeke, “Gora Euskadi askatuta”, “Gora Euskadi sozialista” eta abar. Batzuetan haserretu egiten nintzen, baina hori entzuleek oso gaizki hartzen zuten, eta kantari lagun batzuek ere bai. Beraz, egun batean pentsatu nuen: “Aguanta zaitzatela zeuen ama santisimak!”».

Kantagintza utzi eta bi urtera irabazi zuen Irun Hiria olerki sariketa *Urrats desbideratuak* liburuarekin (1981). Ordura arteko hiru olerki liburuok begiraten hasi eta gerora arrakasta handiko kanta bilakatu diren olerkiak ikusiko ditugu.



Xabierren lehen poesia-liburuak

POLITIKAGINTZA ETA GAIXOTASUNA


Xabierrek beti izan zuen jarrera konprometitua politikan eta herrigintzan oro har. Esate baterako, Gernikako Estatutuaren alde agertu zen publikoki, eta indarkeriaren aurka ere bai. 1980ko maiatzean, adibidez, beste hogeita hamabi intelektualekin batera ETAREN indarkeriaren aurkako manifestu bat izenpetu zuen. Idatzi hura garai hartan ETA izena zermaten bi talde armatuen indarkeriaren aurkakoa zen zuzenean, eta, seguru asko, era horretako lehena izan zen. Sinatzaileen artean, besteak beste, izen hauek ageri ziren: Joxemiel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Eduardo Txi-

lida eta Jose Ramon Recalde. Manifestu horri «33en gutuna» deritzo gaur egun.

1983an, eta Imanol Muruaren eskutik, politikan sartu zen Xabier Gipuzkoako Aldundian. Hasieran, kultur zuzendari kargua hartu zuen Murua kultur diputatu zela, eta gero, 1985ean, Imanol Murua ahaldu nagusi izendatu zutenean, bera izan zen kultur diputatua bi urtez.

Aipagarria da, Xabier Lete kultur diputatu zela, Gabriel Celaya poetari bere liburutegi baliotsua erosi zitzaiola, eta omenaldi gogoangarri bat egin.

1985ean, Gipuzkoako Aldundian zebilela, hasi zen osasunez gaizki sentitzen. Ezin zuen janaririk irentsi, botaka egiten zuen.



Xabier Leteren azken liburuetako batzuk



Ezkerretik eskuinera: atzean, Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Joserra Garzia, Jexux Mari Mendizabal, Joxean Sagastizabal, Ramon Etxezarreta, Inazio Mujika, Felipe Juaristi, Xabier Lete eta bidaniar bat. Eta eserita: Jorge Gimenez, Axentxio Hondartzabal, Antton Olariaga eta Joxemari Iturralde. Argazkia Felix Ibagutxik atera zuen, Bidaniako Balantzategi baserrian, 1988


Hestegorriaren parean traba izugarria sentitzen zuen. Ebakuntza egin zioten, baina digestio aparatua nahikoa hondatua zeukan eta esan zioten, gainera, laster berriz arazoak izango zituela. Eta halaxe gertatu ere egin zen. 1989an hil edo bizi egon zen une batez, eta hiru hilabetez ospitaleratuta. Heste lodia kenduta, infekzioak, ebakuntzak... gogortasun handiko bizitza eraman zuen handik aurrera. Gaixo kronikoaren bizitza, alegia, haren gaitzak ez baitzuen sendabiderik.

Xabier hil edo bizi ospitalean zegoela, Lourdesek Juan Mari Lekuona poeta lagun eta apaizari deitu zion eta eskatu zion oliadurak emateko. Ataka

gaitz hartatik onik aterata, eta Lourdes emaztearekin batera, fede katolikora itzultze sakon bat bizi izan zuten, bere bizitzaren azken urteetan eta azken idazlanetan eragin berebizikoa izan zuena.

BERRIZ ERE KANTARI

1991n, atzera berriz grabazio estudio batean sartu zen, eta kantaldi gutxi batzuk ere eman zituen Antton Valverderekin batera han eta hemen. 80ko urteetan ere, nahiz erretiratuta egon, kantaldi batzuk eman zituzten Antton Valverdek eta biok une puntaletan, Lizardiri omenaldia zela



Xabier Lete Errenterian 1999 (Jon Urbe)

Oiartzunen, Manuel Lekuonaren omenez hurrena Andoainen... Baina denbora horretan guztian, kanta berriak idazten jarraitu zuen, eta 90eko urteetan, heriotzari musua ikusita eta kargu politikoak bazter batera utzita, atzera berriz diskogintzara eta liburugintzara itzuli zen.

Aurrena, *Eskeintza* izeneko diskoa etorri zen (1991); bertan grabatu zuen *Habanera* famatua eta beste hainbat kantu intimista. Berrikuntzarik aipagarriena musikaritaldearena izan zen. Disko horretan hasi eta handik aurrera beti Jabier Muguruza eta Karlos Gimenez hartu zituen la-

gun; Pascal Gaigne, Txema Garces eta beste hainbat musikari ere bai: Joxean Goikoetxea, esate baterako. Hurrengo urtean *Hurbil iragana* grabatu zuen, bere betiko kantu berrituekin.

Xabier Lete ez litzateke Xabier Lete bertsogintzarik gabe, eta urte haietan Joxerra Garzia Euskal Telebistan ari zela-eta proposatu zion, hainbat bertsolarien bertsoak grabatu behar zituela, eta hala egin zuen. Hori izan zuen ernamuina handik urte batzuetara, 2001ean, kale-ratu zuen *Berrehun urtez bertsotan* zazpi diskoz osatutako bildumarena. Letek, besteak beste, honako bertsolari hauen bertsoarik aipagarrienak abestu zituen



Xabier etxean 1999an



Urnieta eta Urrestillako Iriondotarrak

bilduma historiko horretan: Xenpelar, Bilintx, Elizanburu, Etxahun Barkoxe, Otaño, Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao Txiki.

Xabier Letek inork baino hobeto lotu zituen Jacques Brel, Georges Brassens eta Frantziatik zetorren tradizioa Euskal

Herriko bertso tradizioarekin. Eta tradizio biak erabili zituen esan nahi zuena esateko. Kantaria izan zen, kantugilea ere bai. Hark idatzitako kantuak kantatu dituzte Lourdes Iriondok, Benito Lertxundik, Mikel Laboak, Imanol Larzabalek, Jabier Muguruzak, eta beste hainbatek. Xabierrek ekarri ditu euskarara: Gabriel Celaya, Cesare Pavese, Georges Brassens, Lluís Llach, Jacques Brel eta Leonard Cohen, besteak beste.

1990eko urteetan poesia idazteari eta argitaratzeari ere ekin zion berriz, eta 1991n irabazi zuen Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia saria *Zentzu antzaldatuen poemategiarekin*. Gero, horko olerkiak hartu eta beste batzuk erantsiz *Biziaren ikurrak* argitaratu zuen (1992). Liburu horrek bi parte ditu: *Dohainen liburua* eta *Otoitzen liburua*. Hor ikusten da espiritualtasunerantz hortik aurrera egin zuen bidaia estetiko-poetiko.

Mende berriarekin batera olerki irakurketak antolatu zituen, eta haien grabazioak ere geratzen da, esate baterako, 2001eko abenduan Oiartzungo udaletxeko aretoan egin zuena, Rainer Maria Rilke poeta txe-



Xabier Lete Bernardo Atxagarekin



Xabier Lete Xalbadorri eskainitako oroitarriaren aurrean, Urepelen

kiarraren *Orduen liburua* lanetik olerkiak hartu eta Karlos Gimenezen laguntza hutsarekin osatua.

LOURDESEN HERIOTZA

2005ean, ordea, bere azken urteak markatu zituen gertakaria heldu zen: abenduaren azken egunetan, elurra ageri zela Aiako Harrian eta Bianditzeko hegalgailurretan, Lourdes Iriondo bere betiko lagun eta maitalea zendu zen. Hil aurretik hala esan omen zion Xabierri: «Nekatuta nago eta ni banoa, Xabier. Baina zuk segi aurrera. Zer esan eder asko daukazu eta segi idazten, Xabier».

Eta Xabierrek eskabidea bete nahi izan zuen. Hurrengo urtean, 2006an, *Abesti-*

tzak eta poema kantatuak argitaratu zuen. Bertan bildu zituen bere abesti gehienak, idazleak berak abestutakoak, beste abeslariak musikatu eta kantatutakoak eta euskarara itzulitako abesti eta poema kantatuak. Gainera, bere kantuen eta, oro har, kantagintzaren gaineko azalpenez bete ageri da liburua.

2008an, gaixotasunaren lorratzak agerian zituela, kaleratu zuen bere azken olerki bilduma ederra: *Egunsentiaren esku izoztuak*. «Zuri Lourdes, gure maitasunaren



Urnietako udaletxean saria jasotzen



Urnietako alkatea, Jean Paul Berzaitz eta Xabier Lete,
2007 (Josemari Iriondoren argazkia)



Xabier eta Joxean Artze
(Josemari Iriondoren argazkia)

egoitzetatik» idatzi zuen eskaintzan. He-
riotzari, bizitzari eta maitasunari buruzko
«sentikaria» da poema liburua, joan zire-
nen eta gelditu direnen eta denek maita-
tu zituzten gauzen, lurren, paisaien eta
argi-ilunen gainekoa. Gorputzaren gain
behera zen, baina sorkuntzak goia jo
zuen. Bertako olerki errezitatuekin disko
bat grabatu zuen (*Neguan izan zen*), eta
hurrengo urteko Euskadi saria iraba-
zi zuen, eta Xabierrek berak jaso zuen
saria, Bilbon, Patxi Lopez lehendakaria-
ren eskutik.

Txamarraren lepokoari bi eskuez hel-
duta beha dagoela, bi malko irrista-

tu zaizkio masailetan behera. Isil, zu-
zen, jakitun, jabe. Hitz horiexek ditu
mailuka. Autora sartzen lagundu dio
emakumeak eta ospitalera iritsi dire-
nean, emakumeak gizonari zera esan dio:
«Eta nola agurtuko gara?». «Beti beza-
la», erantzun dio gizonak. Pixkanaka-
-pixkanaka ospitaleko eskailek igo
eta atetik eskua altxatuz agurtu du
emakumea.

Bere kasa igogailua hartu eta UVIra igo
da zuzenean. Medikuek ordua iritsi dela
esan diote. Eta gizonak orduan ilobari
deitu dio. «Jarri dena martxan». Bihara-
munean, 2010eko abenduaren 4an, hil da
gizona... isil, zuzen, jakitun, jabe.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Lete familiari
- Iriondo familiari
- Arantxa Leteri
- Pilar Iriondori
- Josemari Iriondori

Zuzendaritza: Jerardo Elortza

Argitaraldia: 1.a, 2012ko martxoan

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Leitzaran Grafikak S.A. • Martin Ugalde Kultur Parkea - Andoain-Gipuzkoa

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak S.A. • Martin Ugalde Kultur Parkea - Andoain-Gipuzkoa

ISBN: 978-84-457-3192-5 (Lan osoarena)
978-84-457-3193-2

L.G.: SS 284-2012

BIDAGULLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco